

BAKIOKO KRONIKA

HILABETEKARIA

HILEA ARGAZKITAN



Kaixo bakidxorak!

Kaixo bakidxorak!

Eskuartean daukazu esku-orriaren helburua zera da, Bakioko udalarearen eta herritarren arteko zubiak eraikitzea, udala lantzen ari den edo herrian gertatzen diren gertakarien berri emanez. Zinez ueste baitugu herritarrok eta zuen erabakiz, agintean gaudenok elkarrekin osatzen dugua udala. Bestalde, eragintza eta informazioa agintaldi honetako ikur ere badirelako. Harreman hori sustatzeko bestelako biderik ere badago, noski, baina auzkari hau errominta edo tresna berria izatea nahi dugu. Harreman honek bi norabide ditu, beraz, lehen ale honekin zabaltzen dugun leiho hau herritarrei ere irekita dago. Herritarren kezka, ekarpenak, iradokizunak edo galderak ondo etorriak izango dira. Albisteak jasotzeaz gain gure herriko hilabeteko argazkia ere egin nahi dugu, gertatu den zerbaitekin lotuta, urteurrenaren bal, albiste azpimarragarriaren bal edo protagonistaren bal... Honetan ere ekarpenak jasotzeko prest gaude. Gardentasunaren izenean, azkenik, agerkeri honek udalari eragiten dion kostuaz ere informazio zehatza kaleratuko dugu.



BERRIAK




Argiteria

Dakizuenek, iraila eta urria bitartean argiteria berria hobetzeko herritarren hainbat iradokizun eta kezka jaso ziren udalarearen. Azaroan enpresako ordezkariak eta udalaren dauden talde politiko guztietako ordezkariak kalez kale ibili ginen akatsak identifikatu eta horien inguruan egindako ekarpenak baloratzen. Argiteria enpresak hainbat hobekuntza-proposamen egin ditu eta udala banan-banan aztertzen ari da. Hemendik aurrera hartzen diren neurrien berri emango dizuegu. Zer esanik ez, udaletik asko eskertzen ditugu orain arte herritarrek egindako ekarpenak eta baita kezkuak ere. Segi horrela!

Kontratazioak

Aholkularitza ekonomikoa: 6 hilabeterako "IBEX" enpresa kontratatu da hiru arloetan laguntza emateko: aurrekontu eta kontabilitate, ordenantzen zein arlo teknikoan sortu beharreko bostenen diseinuan eta udal zerbitzu tekniko eta ekonomikoan ere aholkularitza emateko. Udalaren alderdi guztiak dauden kontratazio mahaiari (5 zinegotzi guztira, 2 CAJ, 2 CH Bildu eta 1 Bakioba) udal gobernuaren proposamena onartu zen. Kontratazio honen kostua hilean 1.639 € + BEZ da.

Arkitektoa: Urtebetez "IGLU arkitektoak S.L.P" enpresa kontratatu da eta bertako bi arkitekto izango dira udalaren lantza. Arkitektoetako batok egunerokoari helduko dio (adibidez udal baimenak ematen edo obrak ikuskatzen), eta bestek epe luzean begira jardungo du helburu estrategikoak markatzen, hala nola, proiektuak diseinatzeko edo herritarren beharrezkoak identifikatzeko. Langile hauen lanaren ardatza jasangarritasuna eta herritarren partehartzea izango dira. Kontratazio horrela izan da: udalako talde politikoek hiru enpresa proposatu dituzte kontratazio mahaiari eta ondoren lekuak baloratu dituzte proiektuak. Zerbitzu hauen kontratazioak 24.387 € ko kostua izan du, urte osorako, aurrekoarekin konparatuta %35,1 merkeago.



KULTURA ETA KIROL ELKARTEEN DIRULAGUNTZAK

Joan den abenduaren 15ean udalak batzarra egin zuen herriko kultura eta kirol arloko elkarteekin, subentzio edo diru-laguntzen inguruko informazioa emateko. Bertan laguntza horiek emateko indarrean dagoen araudia lantzeko konpromisoa hartu zen 2016ko laguntzei begira. Helburua da elkarte guztien artean lan talde bat osatzea, egungo araudia berrikusi eta banaketa egiteko kriterio eta helburuak finkatzea, laguntza-banaketa egokiagoa egiteko. Datoren asteetan hasiera emango diego prozesuari. Kultur eta kirol elkarteak gonbidatzeaz gain, herritarrek ere prozesua jarraitzeko aukera izango dute. Adi egon deialde!

TXAKOLINGUEA

Azkenaldian Txakolingunea kultur ekintzetarako lokal gisa erabili izan da, hainbat herriko talde edo elkarteren aldetik. Besteak beste, espazio edo argiztapena edo komunak bezalako azpitura egokiak dituelako. Antzerki-saioak, erakusketak, bertso-afariak, edo herri-batzarrak egin izan dira eta lokal handia behar den ekintzetarako gero eta gehiago erabiltzen ari gara. Orduan, erabileraren erabileraz kultur gune modura erabiltzen dena Kultur gune izendatzea gustatuko litzateke, elkarteak zabaldu eta hainbat kultur ekintza bertan batuz. Eta era berean, elkarte eta zerbitzu batzuen gabeziak konponbidea bilatz (Ubas-Alderentzako entseu-gelak, frontoiarentzako komun eta aldagelak...). Zer deritzozu zuk? <http://issuu.com/bakiokoudala/docs/bakolinguneko-proposamena>

ARLO EKONOMIKOA

Duela 4 urte, 2012an, Bakioko Udalak epe luzean kreditu bat sinatu zuen banketxe ezberdinekin, baldintza hauekin: 5 milioi €-ko kreditua kontratatu zen %4,75+EURIBOR interesekin. 2015eko abenduan, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bakiok bezala hainbat udalke zituzten banketxe ezberdinetako maileguak bernegoziatu zituen, eta interesak murriztea lortu du. Horrela, urtariletik aurrera interesetan ondokoa ordaindu beharko dugu: %1,95 +EURIBOR. Negoziazio honek 2016ko aurreikuspenak hobetuko ditu.

BALDINTZA KREDITUA SINATUTERAKOAN	
%4,75 + Euribor	198.343,72€
BALDINTZA BERRIAK	
%1,95 + Euribor	77.317,83€
ALDEA ▶ 121.025,89 €	

Herriko egoera ekonomikoaren gaineko informazio zabalagoa BAKIKO KRONIKAREN hurrengo alean izango dugu, 2015. urtearen eta hurrengo urteko aurreikuspena egiteko moduan gaudenean, urtearen bigarren hiruhilekoan.

